

### **Igandetako eguna Ezterenzubin 1930 hamarkadan.**

L.: ba, igandetan, mutil joan aitzinean, beti gure usaia zunan mezaat, baninan, gu gaztiak, berdin hiru neska... Ez, bat etxeat jiten zunan ba frangotan amaekilan, bana gu, hiru neskak, bi neska ta ni asteko ba, anaia gehiena, hua beti goizeko mezan hua, ta ordian gu egun guziko jautsiak, alainan, bi oren bidetan bear zinan jautsi, eh! Ta izanik e urrun, leenak gintunan elizan, ta elizaen ondo-ondoko at, berdin ua lasterka jina zunan, eta meza hasia, to, hatsantia eldu, to, gaizoa hi, urrun intzan ba hi! Ni bezala izan bahintzan, ta ono, artzen gintunan guaun tartian, ta, to, beti, ba, ba, egun guziko jateko puxka atekin, eguerditan ola jaten baginin ausikiño at, eta ba, gue deskantsia, bezperak e baitzien, bezperak, ua gure launekilan, ba, ba, gustatzen gintunan ba gu bezperak balin baziren, ta bezperak hua, ta jendia bazunan, eh! Gu gaztian, alo, nik oai, hamasei, hamost-hamasei urtetan nintzalaik-eta, bazitunan igandiak, oai, nexka gaxten igandia bat, eta mutikoena beste at, gizonena beste at, eta emazte ezkonduena beste at, oai ola, ordian, gure kominionia gure igandeakilan bear gininan in, konfesatu goizian, kominiatu, are, gazte guziak, mutikoak, ba, gu hiutan oita amarretano nik kondatu tinat eta denbora batez, gehiendiak jiten zitunan gurekila, ezkondiak ez zienak, alo, ta geo apezak iten zinan atsaldian, eta hola, prediku bat bezala, denak bezperetatik jausten zitunan eskaleretan beeiti, ta prediku bat bezala iten zinan, ori, ta apeza kontent, gaztia biltzen zela. Oai, oi, oi, ama! Gu lehen izanak gitun aantxu saindu batzu bezala, apezak iiltzen gintinan nolanaika, ta nolanaika, ez gininan beste jeus e, apezak ze erten zin, ta, ua, ah, ba, geo etxeat, zonbait aldiz, frangoki ta iluntzen, lagunekin gustatzen baiginen, ta geo, olako bidia in bear delaikan, astiritia puxka at goiti joan orduko, ta asteko ta bazunan gune bat, oihana, ta iluntzen zelaik, han ilun, eh! Aski kasu, eh! Bena, hala ere, bai jendiak gauaz, eta kontraandan e ai izana bainiz, bai bixta jiten dun, iduri ez diela, ez dun... Kanpoan doonak hartzen din, eta ikusiko un bidia re, ba puxiño at klar dun, ta jiten zunan ba hein batera, bana ez, ez, itsumandoka puxka at. Ba, behin, ah hua, oitzeko dinat, ba, eta heldu nindunan, ba, beti, bazitunan hetsian holaxeko hesol biribil batzu, landatzen zitunan hesiain tinkatzeko, ta bidarte bat baitzen, zera ura, oitzen ai nintzalaikan, to, hesol bat makila gisa, zak erroitik atera, ta are, ta makilatako hartzen ninan, ta azkon bat jin zitzianan, uh, ondoa, ya ba saka (...), laxtu nindinan, ba... Gue... Ba, halako izialduraik, jakiten ahal dun hua zeit badela, eh! Ta geo in ninan: “ba, joan duk ba doaike”, geo bethi baninan gune hartan, ba, potxa at, ba alo, peña atzu bazitunan, ta bazinan seurki ta ale gordagi ederra azkonak, zoko artan, ta olako atzu, ara, ordian zonbait iten ninan, puta, azkona, atea ba ua, erratu, ordian zonbait aldiz ixilxoño iiltzen gintunan, bena olako gauaz bezala, sobera egon eta, geo lasterka, ez gintunan

sekula beantetsiak, baitzakiten guk e maite ginila egoitia, ez zinan sekula aitak deusik erran, ehe, bena urrun delaik, eta gero gaztiak, ez zunan ez bizikletaik ez jeus e, neat e joaitoko, ta ordian hantxe, plazan, gue... Errabotian batzu pilotan, maite zinak, eta ono pilotan ebaska, denak ai izan nai ta denak ezin ar. Geo nik maite ukan dinat gizonki batzuekila musian artzia, ah hua, biziki gazteik asia bainin musian artzia, ua maite gininan iziarri. Xaltoineko Pettan laguna ninan frangotan, ua ba, oi, oi! Ordian aantxu adinak gintunan, ta uh, ba, ba, ta iraahten zonbait aldiz, sos guti lotzen gininan, ba, kaso iten... Hek e kaso iten baitzuten, guk e ikasi kaso iten, ba, erran nai dinat oai... Ez nolanaika emaiten eh! Ehe, Hek frangotan gue beldurrez egoiten, guk tantoa jokutzen, ta “ah, ta orrek badik, eh!” erraiten bata bestiari, ta ordian tanto zonbait uzten, nere baitan: “to, menturatzia balio ik!”. Hara, olaxe zitunan gure igande egunak.

#### **Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala